

TOKIKO ADMINISTRAZIOAN GIZA BALIABIDEAK ZUZENTZEKO ETA KUDEATZEKO PROGRAMA

Aurrekontuei eutsi egin zaien aldi luzearen ondoren, non tokiko administrazioetako giza baliabideen politikak ekitaldi bakoitzean ezarri beharreko doikuntza-neurrien mende egon diren batez ere, erakunde publikoetako pertsonen kudeaketak protagonismo ukaezina hartuko duen aldi berri baten aurrean gaudela dirudi.

Zalantzarik gabe, enplegatu publikoen hautapen- eta hornidura-premiak izango dira tokiko administrazioen berehalako erronketako bat; hala ere, egunetik egunera gero eta beharrezkoagoa izango da giza baliabideen plangintza-tresnak erabiltzea, udalen etorkizuneko beharrei arreta eman ahal izateko. Era berean, garrantzitsua da estrategikoki pentsatzea nola eratu daitekeen talentua bereganatuko duen, enplegatu publikoei profesionalki nahiz pertsonalki garatzeko aukerak eskainiko dizkien, ingurune berritzaile eta sortzaileak eratzeko gai izango den, langileak piztu edo motibatuko dituen eta enplegu publikoak herritarrei kalitateko zerbitzuak ematea bermatuko duen tokiko enplegu publikoa.

Testuinguru horretan, EUDELEk eta IVAPek egoki ikusi dute EAEko udaletako giza baliabideetako unitateen kudeaketa-arduradunei eta -langileei zuzendutako prestakuntza-programa bat abiaraztea, horien kudeaketa-gaitasunak indartu eta eremura berrikuntza pixkanaka sartzeko xedez, bai eta tokiko gobernuaren maila batzuetan giza baliabideen kudeaketaren eremuan egiten ari diren jarduera onak aztertzeko xedez ere, ikaskuntza horrek eragin positiboa izan dezan erakundeetan. Bada, hori lortu ahal izateari begira, programara bertaratzen direnen lantoki diren administrazio publikoen gainean arreta-fokua zabalduko duten hobekuntza- edo berrikuntza-proiektuak egingo dira.

1. SAIOA: 2018ko IRAILAREN 21a

“El empleo público local: contexto y retos del futuro”

Irakaslea: Rafael Jiménez Asensio. Erakunde publikoen aholkularia

2. SAIOA: 2018ko IRAILAREN 28a

“Instrumentos de planificación de recursos humanos en la Administración Local. Buenas prácticas”

Irakaslea: Javier Cuenca Cervera. Valentziako Unibertsitatea

3. SAIOA: 2018ko URRIAREN 4a

“Diseños organizativos y gestión de recursos humanos en la Administración Local. Modelos.”

Irakaslea: Mikel Gorriti Bontigui. Eusko Jaurlaritza

4. SAIOA: 2018ko URRIAREN 16a

“Principios, sistemas, órganos, técnicas y decisiones en los procesos de selección. Su control jurídico, en especial, las ofertas y los procesos de estabilización y consolidación de personal (I)”

Irakaslea: Joan Mauri Majos. Bartzelonako Unibertsitatea

5. SAIOA: 2018ko URRIAREN 17a

“Principios, sistemas, órganos, técnicas y decisiones en los procesos de selección. Su control jurídico, en especial, las ofertas y los procesos de estabilización y consolidación de personal (II)”

Irakaslea: Joan Mauri Majos. Bartzelonako Unibertsitatea

6. SAIOA: 2018ko URRIAREN 26a

“Carrera profesional y evaluación del desempeño en la Administración Local. Un estudio de caso: Ayuntamiento de Valencia”

Irakaslea: José Vicente Cortés Carreres. Valentziako Udala

7. SAIOA: 2018ko AZAROAREN 7a

“Deberes, derechos y condiciones de trabajo en el empleo público local”

Irakaslea: Carolina Gala Durán. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa

8. SAIOA: 2018ko AZAROAREN 16a

“El empleo público laboral en la Administración Local: Estado de la cuestión.”

Irakaslea: Susana Rodríguez Escanciano. Leongo Unibertsitatea

9. SAIOA: 2018ko AZAROAREN 23a

“¿Cómo gestionar personas en un Ayuntamiento? Un estudio de caso: Ayuntamiento de Salamanca”

Irakaslea: Francisco Muñiz Hernandez. Salamancako Udala

10. SAIOA: 2018ko AZAROAREN 30a

“Proiektuen aurkezpena”



TOKIA ETA ORDUTEGIA

- **Tokia:** Bilbo. EUDEL. Zabalgune plaza, 5
- **Ordutegia:** 09:00-14:00

HARTZAILEAK

- Toki-erakundeetako giza baliabideen arduradunak
- Toki-erakundeetako giza baliabideak kudeatzeko teknikariak eta langileak
- Toki-erakundeetan pertsonak kudeatzen dituzten eta gaikuntza nazionala duten funtzionarioak
- Tokiko erakundeetan giza baliabideen arloan eskumenak dauzkaten Administrazio Orokorreko teknikariak.

Gehienez, hogeita bost (25) pertsonak eman ahalko dute izena. Eskaintzen direnak baino leku gehiago eskatzen badira, hautapen-prozesua egingo da.

IZEN-EMATEAK ETA MATRIKULA

Izen-emateak e_IVAP aplikazio informatikoaren bidez egingo dira. Horretarako, dagokion toki-erakundeko prestakuntza-koordinatzailearekin harremanetan jarri beharko da.

Informazio gehiagorako, bidali posta elektronikoko bat prestakuntza@ivap.eus helbidera.

Izen-emateko epea **2018ko irailaren 7an amaituko da.**

PREZIOA

Prezioa **347 eurokoa** da (10 saioak hartzen ditu). Onarpena bidali ondoren, dagokion erakundeari bidaliko dio IVAPek faktura.

ONARPENA

Programa hasi baino astebete lehenago gutxi gorabehera, IVAPek onarpenak bidaliko ditu.

ZIURTAGIRIA

Bi betekizun hauek betetzen badira igorriko da diploma:

- Programaren orduen % 80ra joatea gutxienez
- Hobekuntza- edo berrikuntza-proiektu bat egitea eta ebaluazio positiboa eskuratzea. Proiektuan, programan jorratu den alderdi zehatz bat landu beharko da, dagokion udalari aplikatuta. Bestetik, jendaurrean defendatu beharko da, eta EUDEL-IVAPek izendatutako batzorde batek eman beharko du oniritzia. Hobekuntza- edo berrikuntza-proiektua taldean egin ahalko da, baldin eta toki-erakunde bereko hainbat lagun bertaratzen badira programara. Horrelakoetan, proiektuaren defentsa kide anitzekoa izango da.
- Ziurtapen-xedeetarako, programaren iraupena 70 ordukoa izango da (aurrez aurreko 50 ordu + lana egiteko 20 ordu)